



Helduen literatura

Teleamarauna
Mayi Pelot
Maiatz, 1987

Bakan ale bitxia

UNIBERTSALKI izan duen bigarren mailako estatusari gehitzen badiogu hizkuntza, begi-kolpe batean ikusiko dugu ez dela bereziki oparoa euskarazko zientzia fikzioa. Idatzi izan da, noski, Iban Zalduak inoiz aitzindari deitu dituen haiengandik hasita —eta bereziki nabarmentzen zuen Xabier Kintana, *Izar berria* nobela (1969) eta *Ukronia* (1972) ipuinarekin—. Baina ez generoa BBVA ligara igotzeko adina, edo adinakoa. Hala ere, eman izan ditu bakan ale bitxiak. Zalduak espezialisten taldean kokatutako Mayi Pelotek, esaterako. Kasu kurioa da Pelot: batetik, Itxaro Bordaz landa, Ipar Euskal Herriko emazte idazle gutxietarikoa baita —gehienak ere *Maiatz*en bueltakoak—. Eta, bestetik, idatzitakoa, eskusiboki ia, izan delako zientzia fikzioa. *Maiatz* aldizkariaren 5. zenbakian, 84ko apirilean, narrazio luze bat —*Telelabirintoa*—, eta ipuin bilduma bat urte bete berandua, *Bibarko oroitzapenak*. Bikaina lehena; gorabeheratsuagoa bigarrena, Mikel Antzaren hitzetan.

Eleberri laburra da hirugarren emaitza, *Teleamarauna* —eta ez du zerikusirik Antzak laudatuarekin—. Narrazioaren haria da fin-fina: hainbat lagun, onak, elkartzen dira telepatiaren bitartez galaxiako jendea kontrolatu nahi duen bat, gaiztoa, menperatzeko. Ados. Horraino argumentua. Nabarmengarriena, aldiz, iruditzen zait Pelotek sortzen duen mundua: traturra mañetikoaren lantzen dute lurra; airetxalu-

parekin lekutzen dira batetik bestera; mikroordena-gailu EN 24 belarridunak erabiltzen dituzte. Jantzi ahal dute jeroihalezko galtzatorra, pontxo luze bat, bestela, gorrixka berdea, uso paparo margokoa, oinetan espartin G arabera. Bizi ahal dira kontainer-jauregitxo kuttun zainduetan, iglubok modukoetan, barrua hyperfeldrozkoa, ohean thermotxarpola. Laseraiztoak erabiltzen dituzte sugedorrien hiltzeko; droga gisa marruskatzen dute Deltako sashikat ostoa; esqware bera, uronarra da, Antares aldekoa. Dena nahi bada oso xaloa, nahi bada oso lañoa dena, baina, eta akaso urteek ematen duten distantzia ironikoarekin, irribarre batez irakurtzen dena.

Eta ez zuen askoz gehiago argitaratu Pelotek. Iru-dipena daukat gerora ere ez dela bereziki hobetu euskarazko zientzia fikzioaren egoera. Aukera bat da, hartara, Iban Zalduak hasieretan gaztelaniaz idatzi zuen zientzia fikzioa euskarara itzultzea itxarotea —eta, badakizue, gero frantsesera, ingelesera, hungarierara, eslovenierara... azkenik buelta gaztelaniara itzultzeko—. Baina akaso emango digu satisfazio berehalakoagoa euskarazko zientzia fikzio ez bereziki oparo horretan aztarrika aritzeak, bakan ale bitxi horietako batekin topo egiteko. ■

Aritz Galarra




www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00